Bergarako Udala

ADIKZIOEN PREBENTZIOA HERRIAN SUSTATZEKO PROGRAMA.

PLEGU TEKNIKOA

1.- JUSTIFIKAZIOA

Bergarako Udala aspalditik ari da adikzioen prebentzioa lantzen herriko eremu ezberdinetan.

Urte guzti horietan bultzatu diren esku-hartzeek kontuan izan dituzte adikzioek eta beraien inguruko ikuspegiek denboran zehar izandako aldaketak; esate baterako, garaian garaiko egon den gizarte-sentsibilitatea, sortzen joan diren substantzia eta portaera berriak, kontsumo-eredu berriak, kontsumitzeko testuinguruen aldaketak, eta abar.

Horretarako, esku-hartzeak bideratzeko, oinarri moduan besteak beste erabili ditugu adikzioei buruz egon diren lege eta plan ezberdinak (EAEkoak eta Udalekoak). Gaur egun indarrean daudenak hauek dira:

- 1/2016 Legea, apirilaren 7koa, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzkoa.
- VII. Adikzioen Plana (Euskadi 2017-2021) (VIII. Adikzio Plana argitaratzear dago).
- Adikzioen Prebentziorako V. Tokiko Plana (2023ko martxoaren 27ko Udalbatzak ohiko bilkuran onartutakoa eta 2026ra arte indarrean egongo dena).

Nahiz eta esku-hartze guztietan goian aipatutako markoak ezartzen dituen irizpide berak jarraitu, faltan izan dugu eremu bakoitzean landutakoa eta eremu ezberdinetan landutakoa beraien artean lotura izatea; momentu bakoitzean zerbitzu ezberdinak erabili baititugu.

Orain, Adikzioen Prebentziorako V. Tokiko Planean jasotzen diren ildo estrategikoei eta helburuei erantzuteko, proiektu integrala garatu nahi da, eta horretarako atera dugu lizitazio hau.

Hain zuzen ere, lizitazio honekin hau nahi da: lantalde bera izatea eremu ezberdinetan (eskolan, familian, lanean eta herrian/komunitatean) egingo diren esku-hartzeak egingo dituena; horrela, irizpide, ikuspuntu eta lan egiteko modu bera izateko, esku-hartzeen artean lotura izateko, eta batean eta bestean egindakoa elkarren artean indartzeko, koherentzia eta sendotasuna emanez.

2.- KONTRATUAREN XEDEA

Goian jasotakoa kontuan hartuta, kontratuaren xedea hau da: adikzioen prebentzioa eskola, familia, eta komunitate eremuetan lantzeko zerbitzua esleitzea.

ESKU3da29a0a-b348-4d64-a2e3-3be8de340986

Bergarako Udala

3.- HELBURUAK

3.1. Helburu orokorrak

- Osasunaren sustapena bultzatzea adikzioen arloan
- Komunitate-, eskola- eta familia-gune osasungarriak izateko esku-hartzeak garatzea.
- Osasuna osotasunean ulertuta, osasun fisiko, mental eta soziala sustatzea, bizitzarako ohitura osasungarriak bultzatuz, era indibidualean zein komunitarioan.
- Adikzioek –bai drogen edota adikzioa eragin dezaketen beste substantzien mendekotasunek, bai jokabide-adikzioek– eta horien aurrekari diren arrisku-portaerek ere pertsonen osasunean eta haien ingurunean duten eraginaren inguruko sentsibilizazioa eta ezagutza zabaltzea herrian; herritarrek, eragileek eta erakundeek gaiarekiko dituzten usteak, jarrerak eta jokabideak aldatze aldera.
- Drogak edo adikzioa eragin dezaketen bestelako substantziak kontsumitzen hasteko adina atzeratzea, adingabeen kontsumoa saihestuz, eta horien artean jokabide-adikzioak sortzeko arriskua duten portaera neurrigabeen agerpenari aurre hartzea.
- Drogen eta adikzioa eragin dezaketen bestelako substantzien kontsumo desegokiak edo gehiegizkoak, bai jokabide-adikzioak sortzeko arriskua dakarten portaera neurrigabeak, gutxitzea, eskaintza eta eskaria murriztuz.
- Gai honekin lotuta, ohitura osasungarriak hartzea erraztuko duten sektoreen arteko estrategiak diseinatzea eta ezartzea.

3.2. Eskola eta familia eremuetako helburuak

- Ikasleak, irakasleak eta gurasoak informatzea, sentsibilizatzea eta formatzea/trebatzea adikzioak sor dezaketen substantzien kontsumoari eta neurrigabeko portaerei lotutako arriskuei buruz, eta baita pertsonen osasunean eta haien ingurunean duten eraginari buruz ere.
- Ikasle, irakasle eta gurasoengan erantzukizun pertsonala eta soziala sustatzea, norberaren eta besteen osasuna zaintzeko egokiak diren erabakiak hartzeko.
- Kontratu honen xedearekin lotura duten eta Udalak sustatzen dituen beste programa edota ekimen batzuekin elkarlanean aritzea.

3.3. Komunitate eremuko helburuak

- Osasunaren sustapena eta arrisku-jokabideen prebentzioa bultzatzea hezkuntza ez-formalean; horretarako, erantzukizun pertsonala eta soziala sustatuz hezkuntza ez-formaleko egituretan ari diren hezitzaile edo begiraleengan (kirol, kultura eta gazteria arloetan dauden begiraleak) nahiz zuzendaritza taldeengan, gizarte eragileengan, ostalariengan eta abarrengan, norberaren eta besteen osasuna zaintzeko egokiak diren erabakiak hartzeko.
- Drogen kontsumoaren, jokoaren eta teknologia digitalen gehiegizko erabilerarekiko tolerantzia soziala murriztea.
- Adikzioek pertsonen osasunean eta haien ingurunean duten eraginaren inguruko sentsibilizazioa eta ezagutza areagotzea

ESKU3da29a0a-b348-4d64-a2e3-3be8de34d986

Bergarako Udala

4.- ZERBITZUAREN BETEBEHARRAK

4.1. Zeharkako lan orokorrak: Plangintza, ebaluazioa, koordinazioa, komunikazioa, memoria

- Udaleko Prebentziorako teknikariarekin etengabeko koordinazioa izan beharko du esleipendunak.
- Programaren hartzaile direnen eskura adikzioen prebentzioa txertatzeko eta lantzeko unean uneko aholkularitza eskainiko du.
- Udal edo herri mailan prebentzioa lantzeko sortzen diren gune edota unetan –bereziki hezkuntza-komunitatearekin dauden edo sortzen diren mahaietan– parte hartzea eta hala behar denean haiek dinamizatzea.
- Bergaran, eremu komunitarioan lanean ari diren eragileekin programaren esparruarekin lotura duten egitasmoetan elkarlana eta partaidetza sustatzea.
- Prebentzioaren lanketa ikusgarri egiteko komunikazio moduak edo bideak lantzea.
- Egiten diren esku-hartze guztien plangintza, ebaluazio edota balorazioa egitea; bertan partaide guztien balorazioa jasoko da.
- Behar diren material didaktikoak, komunikaziokoak, ebaluaziokoak, diagnostikokoak eta abar sortzea eta garatzea
- Urte bakoitzeko egindako lanaren inguruko txostena aurkeztu beharko die esleipendunak ordezkari teknikoari eta politikoari. Txosten horretan ezberdinduko da eskola mailan egindakoa (ikasle, guraso, irakasleekin) eta komunitate mailan egindakoak. Gainera, hizkuntza ez-sexista izango dute; datuak sexuaren arabera jasoko dira, eta egindakoak izandako inpaktua jasoko du, baita sexuaren arabera izandakoa ere.

4.2. Eskola eta familia eremuetan:

- Bergaran LH, DBH, Batxilergo eta Erdi Mailako Heziketa Zikloak (EMLHZ) dituzten ikastetxeetan (Angiozar, San Martin Aguirre, Ipintza, Aranzadi, Mariaren Lagundia eta Miguel Altuna), adikzioa sortzen duten sustantzien kontsumoak eta portaerek (joko eta teknologia digitalen gehiegizko erabilerak, besteak beste) dituzten arriskuen prebentzioa lantzea.
- Lanketa hori bertako ikasleekin, ikasleen guraso edo tutoreekin, irakasleekin eta, beharrezkoa ikusten den kasuetan, irakasle ez diren langileekin landuko da.
- Ikasleak LH5. mailan hasi eta hortik gorakoak izango dira.
- Ikasturte hasieran beharren diagnostikoa egingo da, saioak haien beharretara egokitzeko. Horretarako, besteak beste, galdetegiak pasatuko dira ikasle eta gurasoen artean.

  Ikasleen galdetegien ondorioz, drogen kontsumoei, ausazko joko eta apustuei eta bizitzako trebetasunei buruzko diagnostikoa egingo da, sexuaren, adinaren, ikasmailaren eta ikastetxearen arabera.

ESKU3da29a0a-b348-4d64-a2e3-3be8de340986

Bergarako Udala

Gurasoen galdetegian, berriz, gurasoek gai hauen inguruan izan ditzaketen kezka eta beharrak jasoko dira.

Enpresa esleipendunak proposatuko ditu galdetegiak eta ikasleen kasuan zein mailatan pasatuko den, eta Udal Prebentziorako teknikariarekin eta ikastetxeekin adostuko ditu.

Behin datuak jasota, beharrak identifikatu eta gela eta ikas maila bakoitzean lantzeko edukiak zehaztuko ditu ikasturteko plangintza batean.

- Ikasleekin aurrez aurreko saioak egingo dituzte honako arlo hauek lantzen:
  - Autoezagutza, autoestimua, emozioen ezagutza eta gestioa, oldarkortasunaren kontrola, norberaren autonomia eta erabakiak hartzeko gaitasuna, eta nork bere burua onartzea, erresilientzia… (Bizitzarako trebetasunak)
  - Talde presioa eta gizartearen presioa identifikatzeko eta gestionatzeko behar diren trebeziak, asertibitatea, komunikazioa, pertsonen arteko harremanak, gatazken kudeaketa (Gizarte trebetasunak)
  - Substantzien kontsumoari eta neurrigabeko portaerei lotutako arriskuak arlo hauetan: ausazko jokoak, apustuak, telebistaren eta teknologia digitalen erabilera (internet, gizarte-sareak, bideo-jokoak, telefonia mugikorra) eta horien aplikazio berriak.
  - Gizarte-errealitate berrien eta kontsumo-eredu berrien inguruko edukiak.
  - Osasunaren (fisiko eta burukoa) zaintzaren garrantzia
- Saioak egokitu behar dira ikasleen mailetara, haur eta gazteek dituzten ezaugarrietara eta ikastetxeko barne-ordutegira.
- Saio horiek ikastetxe bakoitzean osatuko dira gurasoei eta irakasleei bideratutako aurrez aurreko formazio/trebakuntza/aholkularitza/itzultze saioekin. LH, DBH, Batxilergo eta Erdi Mailako Heziketa Zikloetan (EMLHZ), bakoitzean gutxienez hiru hiletik behin saio bat egingo da, beheko koadroan zehazten den ordu-kopuruarekin.
- Gurasoen saioak, behar diren kasuetan, hizkuntzaren arabera bikoiztu egingo dira. Hau da, gai bera bi bileretan landuko da, bat euskaraz eta bestea gaztelaniaz.
- Bertan honako hauek landuko dira:
  - Adikzioa sor dezaketen substantzien kontsumoari eta neurrigabeko portaerei lotutako arriskuak. Neurrigabeko portaerei dagokionez, batez ere hauek: ausazko jokoak, telebistaren eta teknologia digitalen erabilera (internet, gizarte-sareak, bideo-jokoak, telefonia mugikorra) eta horien aplikazio berriak.
  - Gizarte-errealitate berrien eta kontsumo-eredu berrien inguruko edukiak
  - Gurasotasun positiboarekin lotutako edukiak
  - Eremu fisiko, mental eta sozialean pertsonen garapenarekin lotutako gaiak.
  - Ohitura osasungarriak bultzatzeko edukiak

ESKU3da29a0a-b348-4d64-a2e3-3be8de34d986

Bergarako Udala

- Osasun mentala sendotzeari eta babesteari buruzko gaiak, emozioen oreka.

- Orduen banaketen aurreikuspena jarraian azaltzen da:

LEHEN HEZKUNTZAKO 3. ZIKLOA

IKASTETXEA	MAILA	GELAKO 4 ORDU	GURASOEKIN ZIKLOKO 3 SAIO 2 ORDUKOAK	IRAKASLEEKIN ZIKLOKO 3 SAIO 2 ORDUKOAK
Angiozar	Eskola txikia denez, beharren arabera izango da			
San Martin Aguirre	LH5: 2 gela LH6: 3 gela	8 ordu 12 ordu	3 saio 2 ordukoak	3 saio 2 ordukoak
Aranzadi	LH5: 2 gela LH6: 2 gela	8 ordu 8 ordu	3 saio 2 ordukoak	3 saio 2 ordukoak
Mariaren Lagundia	LH5: 2 gela LH6: 2 gela	8 ordu 8 ordu	3 saio 2 ordukoak	3 saio 2 ordukoak
GUZTIRA LH	**13 gela**	**52 ordu**	**18 ordu**	**18 ordu**

DBH, BATXILERGOA ETA LANBIDE HEZIKETAKO ERDI MAILAKO ZIKLOAK

IKASTETXEA	MAILA	GELAKO 6 ORDU	GURASOEKIN ZIKLOKO 3 SAIO 2 ORDUKOAK	IRAKASLEEKIN ZIKLOKO 3 SAIO 2 ORDUKOAK
Ipintza	DBH1: 5 gela DBH2: 4 gela	30 ordu 24 ordu	3 saio 2 ordukoak	3 saio 2 ordukoak
	DBH3: 5 gela DBH4: 5 gela Batxi1: 4 gela	30 ordu 30 ordu 24 ordu	3 saio 2 ordukoak	3 saio 2 ordukoak
Aranzadi	DBH1: 2 gela DBH2: 2 gela	12 ordu 12 ordu	3 saio 2 ordukoak	3 saio 2 ordukoak
	DBH3: 2 gela DBH4: 2 gela Batxi1: 2 gela	12 ordu 12 ordu 12 ordu	3 saio 2 ordukoak	3 saio 2 ordukoak
Mariaren Lagundia	DBH1: 2 gela DBH2: 2 gela	12 ordu 12 ordu	3 saio 2 ordukoak	3 saio 2 ordukoak
	DBH3: 2 gela DBH4: 2 gela	12 ordu 12 ordu	3 saio 2 ordukoak	3 saio 2 ordukoak
	EMHZ1: 1 gela EMHZ2: 1 gela	6 ordu 6 ordu	0	3 saio 2 ordukoak
Miguel Altuna	EMHZ1: 4 gela EMHZ2: 4 gela	24 ordu 24 ordu	0	3 saio 2 ordukoak
GUZTIRA	**51 gela**	**306 ordu**	**36 ordu**	**48 ordu**

- Ordu hauek, aurreko ikasturteko datuetan oinarrituta daude; baina ikasturte batetik bestera ikasle-kopuruari dagokionez egon daitezkeen aldaketetara egokituko dira.

ESKU3da29a0a-b348-4d64-a2e3-3be8de340986

Bergarako Udala

4.3. Komunitate eremuan

- Adikzioen Prebentziorako V. Tokiko Planean jasotako helburuak eta egitasmoak garatzea eta, horretarako, proposamenak egitea eta herriko eragileekin elkarlanean aritzea.
- Gaiarekin lotutako formakuntza eskaintzea hezkuntza ez-formaleko egituretan ari diren hezitzaile edo begiraleei (kirol, kultura eta gazteriako arloetan dauden begiraleak), egitura horietan dauden zuzendaritza-taldeei, gizarte-eragileei, ostalariei eta abarrei….
- Drogen kontsumoarekiko eta joko eta teknologia digitalen gehiegizko erabilerarekiko tolerantzia soziala murrizteko, sentsibilizazio eta komunikazio kanpainak landu, horrela desnormalizatzeko bai sozialki onartuta dauden substantzien erabilera eta kontsumoa (alkohola, tabakoa, kanabisa, psikofarmakoak, etab.), bai joko eta teknologia digitalen gehiegizko erabilera.
- Ikastetxeetatik kanpo, haur, nerabe eta gazteen gune naturaletan adikzioen prebentzioa lantzeko aukera eskaintzea.
- Adikzioen prebentzioa lantzeko egon daitezkeen bileretan aditu moduan ekarpenak egitea. Unean uneko aholkularitza ematea.
- Ordu kopurua:

Formakuntza eragileekin	15 ordu
Sentsibilizazioa: eskatutako egitasmo zehatzei lotuta (adib. Kerik gabeko guneak, adingabeak eta alkohola, kanabisaren kanpaina)	30 ordu
Bestelako esku-hartzeak ikastetxeetatik kanpo: haur, nerabe eta gazteen gune naturaletan adikzioen prebentzioa lantzeko aukera eskaintzea.	10 ordu
Aholkularitza eragileei	20 ordu
GUZTIRA	**75 ordu**

5.- ORDUEN LABURPENA

EGIN BEHARREKO AURREZ AURREKO ORDUAK (aurreikuspena)	**ORDU-KOPURUA**
Ikasleekin aurrez aurreko orduak (LH 5, 6 +DBH+DBHtik gora)	358 ordu
Gurasoekin aurrez aurreko orduak	54 ordu
Irakasleei zuzendutako aurrez aurreko itzultze/formazio orduak	66 ordu
Komunitate mailan	75 ordu
Udalarekin koordinazioa (bilerak, eskolen mahaia…)	20 ordu
GUZTIRA	**573**

***Udalak ez du ziurtatzen zerrendatutako ordu guztiak (bere osotasunean) gauzatuko direnik.

ESKU3da29a0a-b348-4d64-a2e3-3be8de340986

***Taulan jasotako orduak kontratuaren eta egindako lanaren arabera ordainduko dira; prestaketa-lanak ez dira aparte zerrendatu ez direlako aparte ordainduko. Ulertzen da adjudikazio-prezioaren barruan daudela jardueraren garapenak dakartzan kontzeptu guztiak: giza baliabideak, material didaktikoak, prestaketa-lanak, ikastetxeekin izandako harremanak eta bilerak, gurasoekin-irakasleekin izandako bilerak, material suntsigarria, fotokopiak, garraioa...

***Hala ere, sentsibilizazio kanpaina edo beste esku-hartzeren batean material gehigarriak aparteko gastuak baleuzka, udalarekin adostu beharko litzateke eta udalak egoki iritziko balu bere gain hartuko luke gastua. Halaber, eta bereziki maila komunitarioan egiteko proiektu edo ekintza berezietan, proiektu edo ekintza aurrera eramateko ordu-kopuruak adostu egingo dira udalaren eta enpresaren artean.

6.- HIZKUNTZA IRIZPIDEAK

Kontratazio honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan ezarria eta Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean eta hori garatzen duten arauetan erregulatua; besteak beste, azaroaren 19ko 179/2019 Dekretuan eta Bergarako Udalbatzarrak 2023-05-22an onartutako euskararen erabilera normalizatzeko planean jasotakoa.

6. 1. Zerbitzua emango duten langileen hizkuntza-gaitasuna

Bergarako Udalarekin eta hirugarrenekin harremana izango duten neurrian, kontratatutako enpresako langileek Bergarako Udalak berak bete behar lituzkeen pareko baldintzak bermatu beharko dituzte euskarazko gaitasunei dagokienez.

Hori dela-eta, eman beharreko zerbitzuen izaera kontuan izanik, jardueran parte hartuko du lantalde teknikoko partaideak euskarazko C1 gaitasun-maila (Europako Erreferentzia Markoaren araberakoa) egiaztatu beharko dute.

Eskaintzarik onuragarriena aitortu, jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita 10 egun baliodunen barruan, enpresak egiaztatu egin beharko du zerbitzua emango duten pertsonek badutela eskatutako euskara maila.

Euskara gaitasuna egiaztatzeko honako bi bideak erabili ahal izango dira:

- Zerbitzua eman behar du(t)en pertsonak/ek eskatutako euskara-maila dauka(te)la ziurtatzen duen agiria aurkeztea edo,
- Bergarako Udalak (Udal Euskaltegiarekin lankidetzan) erabakitako proba egitea.

6.2.- Zerbitzu-hizkuntza

Enpresak zerbitzuaren eginkizunak burutzeko Udalarekin eta ikastetxeekin dituen harremanak (bilerak, txostenak…) euskaraz bideratuko dira.

Ikasle, hezitzaile eta irakasleekin eman beharreko saioak ere euskaraz izango dira oro har eta, betiere, euskararen kalitatea bermatu beharko da. Ikastetxeren baten talderen batekin gazteleraz aritzeko premia sortuko balitz, horri erantzun beharko dio enpresa adjudikazio-hartzaileak. Kasu berezi horiek ikastetxearekin eta kontratazioaz arduratzen den udal teknikariarekin aztertuko dira, nola arituko diren elkarrekin aztertzeko.

ESKU3da29a0a-b348-4d64-a2e3-3be8de340986

Bergarako Udala

Gurasoekin egin beharreko saioak antolatzeko orduan, izena emateko orrian galdetuko da “Euskara ulertzen duzu?”, eta horren arabera antolatuko dira taldeak. Aurrez izena ematen ez den kasuetan, aurrez udal teknikariarekin eta ikastetxearekin aztertuko dira euskararen erabilera bermatzeko baliabideak eta moduak. Euskara ulertzen ez dutenak dauden kasuetan saio bat euskaraz eta bestea gaztelaniaz antolatu ahalko dira. Kasu berezi horiek ikastetxearekin eta kontratazioaz arduratzen den udal teknikariarekin aztertuko dira, nola arituko diren elkarrekin aztertzeko.

Ikastetxeetatik kanpo, hezkuntza ez formal edo komunitatean egingo diren esku-hartzeetan, ahozko harremanetan lehen hitzak beti euskaraz izango dira eta jarrera proaktiboa izango da; hau da, mezu hartzaileak euskara ulertzen badu euskaraz jarraitzeko gonbita egingo zaio; dena den herritarren hizkuntza eskubideak bermatuko dira.

Enpresa adjudikazio-hartzaileak herritarrei begirako idatzirik egin behar badu (oharrak, aholkuak, apunteak…) udalaren hizkuntza irizpideak jarraitu beharko dira. Hori dela eta, euskara ulertzen dutenei euskara hutsean eskainiko zaie eta, bestela, euskaraz eta gaztelaniaz (kasu honetan euskarari lehentasuna emanda). Eta betiere euskararen kalitatea (zuzentasuna, ulergarritasuna...) bermatu beharko da.

6.3. Hizkuntza-irizpideen betetze-mailaren jarraipena

Kontratazioaren arduratu den udal zerbitzuak emango dizkio enpresari hizkuntza-irizpideen inguruko azalpenak —Euskara Zerbitzuarekin adostutako ildoei jarraituz— eta enpresako arduradunak azalduko dizkie langileei.

Bestalde, hizkuntza-irizpideen betetze-mailaren inguruko jarraipena ere egingo du enpresako arduradunak eta horren berri emango dio Udalari, bileratan edota dagokion txostenetan.

7.- INGURUMENAREKIKO ERRESPETUA

Laneko dokumentuak formatu elektronikoan entregatu behar dira posta elektronikoaren edo zerbitzari baten bidez (dokumentuak deskargatzeko estekak dituztela, edo ftp bidez), edo, bestela, USB edo antzerako euskarriren batean, betiere birgrabagarriak eta irekiak, berriro erabili ahal izateko.

Dokumentuak inprimatzea beharrezkoa bada edo kontratuaren arduradunak hala eskatzen badu (laneko txostenak, bileretako dokumentuak, etab.), adjudikazio-hartzaileak hau egin behar du:

- Kontratuaren arduradunarekin adostu zein dokumentu inprimatu behar diren,
- Ahalik eta ale gutxiena inprimatu, beharrei egokituz (bilera bateko partaide-kopurua, etab.), kopiarik ez dadin sobera geratu.
- % 100 birziklatutako papera erabili (% 65, gutxienik, kontsumitu ondokoa) edo baso kudeaketa iraunkorreko edo birziklatutako zuntzen edukia gutxienik % 20koa duen paper birziklatu gabea.
- Ahal den heinean, dokumentuak alde bietan eta zuri-beltzean inprimatu, ahalik eta gutxiena koadernatuta eta plastikozko azalik gabe (errazago birziklatzeko).

DILIGENTZIA: Jasota gera dadila Adikzioen Prebentzioa herrian sustatzeko programa gauzatzeko Baldintza Teknikoen Plegu hau 2023ko azaroaren 3ko dekretu baten bidez onartutakoa dela.

ESKU3da29a0a-b348-4d64-a2e3-3be8de34d986

Bergaran, 2023ko azaroaren 3an

BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA

ESKU3da29a0a-b348-4d64-a2e3-3be8de34d986

Bergarako Udala

PROGRAMA LOCAL PARA IMPULSAR LA PREVENCIÓN DE LAS ADICCIONES.

PLIEGO TÉCNICO

1.- JUSTIFICACIÓN

El Ayuntamiento de Bergara viene trabajando desde hace tiempo en la prevención de las adicciones en diversos ámbitos de la localidad.

Las intervenciones que se han impulsado a lo largo de todos estos años han tenido en cuenta los cambios que con el tiempo han experimentado tanto las adicciones como las perspectivas sobre las mismas, la sensibilidad social de cada época, las nuevas sustancias y conductas que han ido surgiendo, los nuevos modelos de consumo, los cambios en los contextos de consumo, etc.

Para ello, a la hora de orientar las intervenciones, se han utilizado como base –entre otros– las diferentes leyes y planes que han existido sobre las adicciones tanto en la CAPV como en el ayuntamiento. Los instrumentos vigentes actualmente son:

- La Ley 1/2016, de 7 de abril, de Atención Integral de Adicciones y Drogodependencias.
- VII Plan de Adicciones (Euskadi 2017-2021) (El VIII Plan de Adicciones está a punto de publicarse).
- El V Plan Local para la Prevención de la Adicciones (aprobado por el Pleno de la Corporación Municipal celebrado el 27 de marzo de 2023 y que seguirá vigente hasta el 2026).

A pesar de que en todas las intervenciones se siguen los mismos criterios que establece el marco arriba mencionado, se ha detectado una falta de vinculación entre lo trabajado en cada ámbito y lo trabajado en el resto de ámbitos, ya que en cada momento se han utilizado diferentes servicios.

Ahora, a fin de dar respuesta a las líneas estratégicas y objetivos recogidos en el V Plan Local para la Prevención de las Adicciones, se pretende desarrollar un proyecto integral, objetivo que guía la convocatoria de esta licitación.

Concretamente, con esta licitación se pretende que sea un mismo equipo de trabajo quien lleve a cabo las intervenciones a realizar en los diferentes ámbitos (escolar, familiar, laboral y local/comunitario), con el fin de utilizar el mismo criterio, la misma perspectiva y forma de trabajo, para establecer relación entre las distintas intervenciones y reforzarse mutuamente con lo realizado en unas y otras, proporcionando así coherencia y consistencia.

2.- OBJETO DEL CONTRATO

Teniendo en cuenta lo anteriormente expuesto, el objeto del contrato es la adjudicación del servicio para trabajar la prevención de adicciones en los ámbitos escolar, familiar y comunitario.

ESKU3da29a0a-b348-4d64-a2e3-3be8de340986

Bergarako Udala

3.- OBJETIVOS

3.1. Objetivos generales

- Impulsar la promoción de la salud en el ámbito de las adicciones
- Llevar a cabo intervenciones para la consecución de ámbitos comunitarios, escolares y familiares saludables.
- Promover la salud física, mental y social desde una concepción integral de la salud, impulsando hábitos de vida saludables, tanto a nivel individual como comunitario.
- Realizar en el municipio una labor de sensibilización y divulgación del conocimiento sobre el impacto que tanto las adicciones –la dependencia de las drogas y otras sustancias potencialmente adictivas, y la de las adicciones conductuales– como los comportamientos de riesgo que predisponen a ellas pueden acarrear a la salud de las personas y a su entorno, para de esta manera modificar las creencias, actitudes y comportamientos de la ciudadanía, agentes e instituciones sobre esta materia.
- Retrasar la edad de inicio en el consumo de drogas u otras sustancias adictivas, evitando el consumo de las personas menores de edad, y prevenir así mismo entre dichas personas la aparición de conductas excesivas con riesgo de generar adicciones comportamentales.
- Reducir los consumos inadecuados o excesivos de drogas y otras sustancias adictivas, así como las conductas excesivas con riesgo de generar adicciones comportamentales, mediante la disminución de la oferta y la demanda.
- En relación con este tema, diseñar e implementar estrategias intersectoriales que propicien la adquisición de hábitos saludables.

3.2. Objetivos en los ámbitos escolar y familiar

- Informar, sensibilizar y formar/capacitar al alumnado, al profesorado y a padres-madres sobre los riesgos asociados al consumo de sustancias adictivas y a las conductas excesivas, así como sobre su incidencia en la salud de las personas y en su entorno.
- Fomentar la responsabilidad personal y social del alumnado, profesorado y padres-madres en la toma de decisiones adecuadas para el cuidado de la salud propia y ajena.
- Colaborar con otros programas y/o iniciativas promovidas desde el ayuntamiento en relación con el objeto de este contrato.

3.3. Objetivos en el ámbito comunitario

- Impulsar la promoción de la salud y la prevención de conductas de riesgo en la educación no formal, promoviendo la responsabilidad personal y social en las personas educadoras o monitoras que desempeñan su labor en estructuras de educación no formal (monitores y monitoras en los ámbitos del deporte, la cultura y la juventud), así como en los equipos directivos, agentes sociales, el colectivo de la

ESKU3da29a0a-b348-4d64-a2e3-3be8de34d986

hostelería, etc., respecto a la toma de decisiones adecuadas para el cuidado de la propia salud y de la ajena.

- Disminuir la tolerancia social respecto al consumo de drogas, al juego y al abuso de las tecnologías digitales.
- Incrementar la sensibilización y el conocimiento sobre la incidencia de las adicciones en la salud de las personas y en su entorno

4.- OBLIGACIONES DEL SERVICIO

4.1. Cometidos transversales generales: Planificación, evaluación, coordinación, comunicación, memoria

- La adjudicataria deberá mantener una coordinación permanente con la técnica municipal de Prevención.
- Prestará asesoramiento puntual sobre integración y elaboración de prevención de adicciones a las personas o entidades destinatarias del programa.
- Participar y, en su caso, dinamizar los espacios y/u ocasiones que se generen para tratar la prevención a nivel municipal o local, especialmente en las mesas que existen o que se constituyan con la comunidad educativa.
- Fomentar la colaboración y participación en proyectos relacionados con el ámbito del programa con agentes que trabajan a nivel comunitario en Bergara.
- Trabajar formas o canales de comunicación para visibilizar el tratamiento de la prevención.
- Elaborar la planificación, evaluación y/o valoración de todas las intervenciones que se realicen, incluyendo la valoración de todas las personas y entidades participantes.
- Crear y desarrollar los materiales didácticos necesarios, así como los de comunicación, evaluación, diagnóstico, etc.
- La adjudicataria deberá presentar a las/os representantes técnicas/os y políticas/os un informe sobre el trabajo realizado en cada año, Donde se tratará por separado lo que se ha realizado a nivel escolar (con alumnado, madres-padres, profesorado) y lo que se ha realizado a nivel comunitario. Además, se utilizará un lenguaje no sexista, los datos se recopilarán en función del sexo, y se expondrá la incidencia que ha tenido el trabajo realizado, también por sexos.

4.2. En los ámbitos escolar y familiar:

- Tratar en los centros educativos que en Bergara imparten Educación Primaria (EP), Secundaria Obligatoria (ESO), Bachillerato y Ciclos Formativos de Grado Medio (CFGM) –es decir, Angiozar, San Martín Aguirre, Ipintza, Aranzadi, Mariaren Lagundia y Miguel Altuna– la prevención de los riesgos del consumo de sustancias y conductas adictivas (entre otras, el abuso del juego y de las tecnologías digitales).

ESKU3da29a0a-b348-4d64-a2e3-3be8de34d986

- Se trabajará con el alumnado del centro, sus madres-padres, su profesorado y, si se considera necesario, con el personal no docente.
- El nivel del alumnado será desde 5º EP hacia arriba.
- Al comienzo del curso se realizará un diagnóstico de necesidades a fin de adecuar las sesiones a las mismas. Para ello, entre otras cosas, se pasarán cuestionarios entre el alumnado y las madres-padres.

  A partir del resultado de dichos cuestionarios, se realizará un diagnóstico sobre consumos de drogas, apuestas y juegos de azar y habilidades vitales, en función del sexo, la edad, el nivel escolar y el centro educativo.

  En el cuestionario de padres-madres se recogerán las inquietudes y necesidades que ellos/as puedan tener sobre estos temas.

  La empresa adjudicataria, tras proponer los cuestionarios y, en el caso del alumnado, el nivel en el que se realizarán, los acordará con la técnica municipal de Prevención y con los centros educativos.

  Una vez recopilados los datos, en una planificación del curso escolar, identificará las necesidades y determinará los contenidos a tratar en cada aula y nivel.
- Realizarán sesiones presenciales con el alumnado tratando las siguientes materias:
  - Autoconocimiento, autoestima, conocimiento y gestión de las emociones, control de la agresividad, autonomía personal y capacidad de decisión, autoaceptación, resiliencia... (Habilidades vitales)
  - Las habilidades necesarias para identificar y gestionar la presión del grupo y de la sociedad, la asertividad, la comunicación, las relaciones interpersonales, la gestión de los conflictos (Habilidades sociales)
  - Los riesgos asociados al consumo de sustancias y a las conductas excesivas respecto a juegos de azar, apuestas, uso de televisión y tecnologías digitales (internet, redes sociales, videojuegos, telefonía móvil) y sus nuevas aplicaciones.
  - Contenidos en torno a nuevas realidades sociales y nuevos modelos de consumo.
  - La importancia del cuidado de la salud (física y mental)
- Las sesiones deberán adaptarse a los niveles del alumnado, a las características de las niñas, niños y jóvenes, así como al horario interno del centro.
- Estas sesiones se complementarán en cada centro con sesiones presenciales de formación/capacitación/asesoramiento/devolución dirigidas a padres-madres y profesorado. En EP, ESO, Bachillerato y Ciclos Formativos de Grado Medio (CFGM), se realizará al menos una sesión trimestral en cada uno de ellos, con el número de horas que se detalla en el cuadro inferior.

ESKU3da29a0a-b348-4d64-a2e3-3be8de34d986

- Las sesiones de padres y madres, en caso de ser necesario, se duplicarán en función del idioma. Es decir, se tratará el mismo tema en dos reuniones, una en euskera y otra en castellano.
- En ellas se tratarán:
  - Los riesgos asociados al consumo de sustancias adictivas y a conductas excesivas. En cuanto a estas últimas, sobre todo, los juegos de azar, el uso de televisión y tecnologías digitales (internet, redes sociales, videojuegos, telefonía móvil) y sus nuevas aplicaciones.
  - Contenidos en torno a nuevas realidades sociales y nuevos modelos de consumo.
  - Contenidos relacionados con una parentalidad positiva
  - Contenidos relacionados con el desarrollo de las personas a nivel físico, mental y social.
  - Contenidos para fomentar hábitos saludables
  - Cuestiones relativas al fortalecimiento y a la protección de la salud mental, equilibrio emocional.

- La previsión de la distribución de horas es la siguiente:

3er. CICLO DE EDUCACIÓN PRIMARIA

CENTRO EDUCATIVO	**NIVEL**	**4 HORAS POR AULA**	**CON MADRES-PADRES 3 SESIONES (DE 2 HORAS) POR CICLO**	**CON PROFESORADO 3 SESIONES (DE 2 HORAS) POR CICLO**
Angiozar	Al ser una escuela pequeña (unitaria), se hará en función de sus necesidades			
San Martín Aguirre	EP5: 2 aulas EP6: 3 aulas	8 horas 12 horas	3 sesiones de 2 horas	3 sesiones de 2 horas
Aranzadi	EP5: 2 aulas EP6: 2 aulas	8 horas 8 horas	3 sesiones de 2 horas	3 sesiones de 2 horas
Mariaren Lagundia	EP5: 2 aulas EP6: 2 aulas	8 horas 8 horas	3 sesiones de 2 horas	3 sesiones de 2 horas
TOTAL EP	**13 aulas**	**52 horas**	**18 horas**	**18 horas**

ESO, BACHILLERATO Y CICLOS FORMATIVOS DE GRADO MEDIO

CENTRO EDUCATIVO	**NIVEL**	**6 HORAS POR AULA**	**CON MADRES-PADRES 3 SESIONES (DE 2 HORAS) POR CICLO**	**CON PROFESORADO 3 SESIONES (DE 2 HORAS) POR CICLO**
Ipintza	ESO1: 5 aulas ESO2: 4 aulas	30 horas 24 horas	3 sesiones de 2 horas	3 sesiones de 2 horas
	ESO3: 5 aulas ESO4: 5 aulas Bachi1: 4 aulas	30 horas 30 horas 24 horas	3 sesiones de 2 horas	3 sesiones de 2 horas
Aranzadi	ESO1: 2 aulas ESO2: 2 aulas	12 horas 12 horas	3 sesiones de 2 horas	3 sesiones de 2 horas

ESKU3da29a0a-b348-4d64-a2e3-3be8de340986

	ESO3: 2 aulas ESO4: 2 aulas Bachi1: 2 aulas	12 horas 12 horas 12 horas	3 sesiones de 2 horas	3 sesiones de 2 horas
Mariaren Lagundia	ESO1: 2 aulas ESO2: 2 aulas	12 horas 12 horas	3 sesiones de 2 horas	3 sesiones de 2 horas
	ESO3: 2 aulas ESO4: 2 aulas	12 horas 12 horas	3 sesiones de 2 horas	3 sesiones de 2 horas
	CFGM1: 1 aula CFGM2: 1 aula	6 horas 6 horas	0	3 sesiones de 2 horas
Miguel Altuna	CFGM1: 4 aulas CFGM: 4 aulas	24 horas 24 horas	0	3 sesiones de 2 horas
TOTAL	**51 aulas**	**306 horas**	**36 horas**	**48 horas**

- Estas horas están basadas en los datos del curso anterior, pero se adaptarán a los posibles cambios que puede haber de un curso a otro en cuanto al número del alumnado.

4.3. En el ámbito comunitario

- Desarrollar los objetivos y proyectos recogidos en el V Plan Local de Prevención de Adicciones, realizando propuestas y colaborando con los agentes locales.
- Ofrecer formación sobre este tema a personas educadoras o monitoras que desempeñan su labor en estructuras de educación no formal (monitores y monitoras en los ámbitos del deporte, la cultura y la juventud), así como a los equipos directivos, agentes sociales, colectivo de la hostelería, etc.
- Desarrollar campañas de sensibilización y comunicación para reducir la tolerancia social respecto al consumo de drogas y al abuso del juego y de las tecnologías digitales, con el fin de desnormalizar tanto el uso y consumo de sustancias socialmente aceptadas (alcohol, tabaco, cannabis, psicofármacos, etc.) como el abuso del juego y de las tecnologías digitales.
- Ofrecer la posibilidad de tratar la prevención de las adicciones fuera del contexto escolar, en los espacios naturales de las niñas, niños y jóvenes.
- Realizar aportaciones, como personas expertas, en las sesiones que puedan celebrase para la prevención de adicciones. Prestar asesoramiento puntual.
- Número de horas:

Con agentes formativos	15 horas
Sensibilización: en relación con proyectos concretos solicitados (por ejemplo, Espacios sin humo, menores y alcohol, campaña del cannabis)	30 horas
Otras intervenciones fuera del contexto escolar: ofrecer la posibilidad de tratar la prevención de las adicciones en los espacios naturales de las niñas, niños y jóvenes.	10 horas

ESKU3da29a0a-b348-4d64-a2e3-3be8de34d986

Asesoramiento a agentes	20 horas
TOTAL	**75 horas**

5.- RESUMEN DE HORAS

HORAS PRESENCIALES A REALIZAR (previsión)	NÚMERO DE HORAS
Horas presenciales con el alumnado (EP 5,6 + ESO + superiores)	358 horas
Horas presenciales con madres-padres	54 horas
Horas presenciales de formación/devolución dirigidas al profesorado	66 horas
A nivel comunitario	75 horas
Coordinación con el ayuntamiento (reuniones, mesa escolar…)	20 horas
TOTAL	**573**

***El ayuntamiento no garantiza que se vayan a realizar íntegramente todas las horas que se indican.

***Las horas recogidas en la tabla se abonarán en función del contrato y del trabajo realizado; los trabajos de preparación no se han indicado porque no se abonarán aparte. Se entiende que el precio de adjudicación incluye todos los conceptos que conlleva el desarrollo de la actividad: recursos humanos, materiales didácticos, trabajos de preparación, contactos y reuniones con centros educativos, reuniones con madres-padres y profesorado, material fungible, fotocopias, transporte...

***No obstante, en caso de que en alguna campaña de sensibilización o en otra intervención el material adicional conllevara gastos extraordinarios, tras acordarlo con el ayuntamiento este lo asumiría en caso de considerarlo oportuno. Asimismo, y especialmente en los proyectos o iniciativas extraordinarias que pudieran realizarse a nivel comunitario, el número de horas para llevar a cabo el proyecto o acción será acordado entre el ayuntamiento y la empresa.

6.- CRITERIOS LINGÜÍSTICOS

Esta contratación se halla sujeta obligatoriamente al régimen de doble oficialidad lingüística establecido por el Estatuto de Autonomía del País Vasco en su artículo 6° y regulado por la Ley Básica 10/1982, de 24 de noviembre, de Normalización del Uso del Euskera, así como por la normativa que la desarrolla, entre otros el Decreto 179/2019, de 19 de noviembre, y el contenido del Plan para la normalización del uso del euskera que fue aprobado por el Pleno Municipal del Ayuntamiento de Bergara el 22-05-2023.

6. 1. Capacitación lingüística del personal que vaya a prestar el servicio

Dado que deberán mantener relación con el Ayuntamiento de Bergara y con terceros, las personas empleadas por la empresa contratada deberán garantizar, en lo que a su competencia lingüística en euskera se refiere, unas condiciones similares a las que sean exigibles al Ayuntamiento de Bergara.

ESKU3da29a0a-b348-4d64-a2e3-3be8de34d986

Bergarako Udala

Por ello, teniendo en cuenta las características de los servicios a prestar, los miembros del equipo técnico de trabajo que participen en la actividad deberán acreditar en cuanto al euskera el nivel de competencia C1 del Marco Europeo de Referencia.

Una vez declarada la oferta más ventajosa, en el plazo de 10 días hábiles a partir del día siguiente al de su notificación, la empresa deberá acreditar que las personas que prestarán el servicio cuentan con el nivel de euskera requerido.

La acreditación de la competencia de euskera podrá hacerse de las dos maneras siguientes:

- Presentación de documento que acredite que la(s) persona(s) que vaya(n) a prestar el servicio alcanza(n) el nivel de euskera exigido.
- Realizar la prueba que determine el Ayuntamiento de Bergara (en colaboración con el Euskaltegi Municipal).

6.2.- Idioma del servicio

Las relaciones de la empresa con el ayuntamiento y con los centros educativos para el desarrollo de las funciones del servicio (reuniones, informes...) se realizarán en euskera.

Las sesiones a impartir con el alumnado, el personal educador y el profesorado serán también en euskera con carácter general, debiendo garantizarse siempre la calidad del euskera. En caso de que en algún grupo de algún centro se necesite utilizar el castellano, la empresa adjudicataria deberá dar respuesta a dicha necesidad. Estos casos especiales se analizarán con el centro y con el/la técnico/a municipal responsable de la contratación a fin de estudiar conjuntamente el modo de actuación.

A la hora de organizar las sesiones con madres-padres, en la hoja de inscripción se preguntará "¿Entiendes el euskera?" y en función de ello se organizarán los grupos. En caso de no haber preinscripción, se estudiarán con anterioridad con la/el técnica/o municipal y con el centro educativo los recursos y formas para garantizar el uso del euskera. Cuando haya personas que no entienden el euskera se podrá organizar una sesión en euskera y otra en castellano. Estos casos especiales se analizarán con el centro y con el/la técnico/a municipal responsable de la contratación a fin de estudiar conjuntamente el modo de actuación.

Fuera de los centros educativos, en las intervenciones que se desarrollen en la educación no formal o en la comunidad, las primeras palabras serán siempre en euskera, con una actitud proactiva; es decir, si la persona receptora entiende euskera se le invitará a seguir en dicha lengua, garantizándose en todo caso los derechos lingüísticos de la ciudadanía.

Para la elaboración de escritos dirigidos a la ciudadanía (notas, consejos, apuntes...) por parte de la empresa adjudicataria, se deberán seguir los criterios lingüísticos municipales. Por ello, a quienes entiendan euskera se les enviará solamente en euskera, y al resto en euskera y castellano (dando preferencia al euskera), debiendo siempre garantizar la calidad del euskera (corrección, comprensión...).

6.3. Seguimiento del grado de cumplimiento de los criterios lingüísticos

El servicio municipal responsable de la contratación informará a la empresa sobre los criterios lingüísticos, siguiendo las directrices acordadas con el Servicio de Euskera, y será la persona responsable de la empresa quien los exponga al personal trabajador.

Por otro lado, la persona responsable de la empresa también realizará un seguimiento del cumplimiento de los criterios lingüísticos e informará de ello al ayuntamiento en las reuniones o informes correspondientes.

ESKU3da29a0a-b348-4d64-a2e3-3be8de34d986

Bergarako Udala

7.- RESPETO AL MEDIO AMBIENTE

Los documentos de trabajo deben ser entregados en formato electrónico a través del correo electrónico o de un servidor (con enlaces de descarga de documentos, o mediante ftp) o, en su defecto, en un soporte USB o similar, siempre regrabables y abiertos para su reutilización.

Si fuera necesario imprimir documentos, o si así lo solicitara la persona responsable del contrato (informes de trabajo, documentos de reuniones, etc.), la adjudicataria deberá:

- Acordar con la persona responsable del contrato los documentos que se han de imprimir,
- Imprimir el menor número posible de ejemplares, ajustándose a las necesidades (número de participantes en una sesión, etc.), a fin de que no sobren copias.
- Utilizar papel 100% reciclado (mínimo 65% de postconsumo) o papel no reciclado de gestión forestal sostenible o con un contenido mínimo de 20% de fibras recicladas.
- En la medida de lo posible, imprimir los documentos por ambas caras y en blanco y negro, con la menor encuadernación posible y sin cubiertas de plástico (para facilitar su reciclaje).

DILIGENCIA: Para hacer constar que este Pliego de Condiciones Técnicas para la ejecución del programa para impulsar la Prevención de Adicciones en la localidad ha sido aprobado mediante decreto emitido el día 3 de noviembre de 2023.

En Bergara, a 3 de noviembre de 2023

LA SECRETARIA ACCIDENTAL

Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU3da29a0a-b348-4d64-a2e3-3be8de34d986**

Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronokoan: ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07410***

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07410***